


ODOL HOTZEAN

TRUMAN CAPOTE


Hiltzaile batzuek odol hotzean burututako sarraskia. Dolar apur batzuen truke sei bizitza alferrik galdu (lau biktima, bi hiltzaile). Truman Capote-k hiltzaile horien bizitzetan arakatu zuen, absurdotzat har litezkeen ekintzak ulertu nahirik. Lekukoen hitzak, egunkarietan agertzen zena, jende arrunten iritziak eta, atxilotutakoan, hiltzaileen beraien deklarazioak: material hauek guztiak erabili zituen idazleak bere fikziorik gabeko eleberria osatzeko. Eta istorio hau kontatzeko, bere burua izkutatu zuen. Nekez aurkituko da liburu osoan zehar, idazleari leporatu dakioken iritzirik, bere asmoa ez baita pertsonaia horiek juzkatzea, ekintzak aurkeztea baizik. Honelako liburu bat ere odol hotzean idatzi behar baita. Izan ere, irakurleak ekintzak ikusi egingo ditu, filme baten aurrean egongo balitz bezala. Horregatik ez da harrizkoa 1967.ean R. Brooks-ek istorio hau pantailaratu izana. Liburua erakargarria da, bortizkeria erakargarria den neurrian, maisu batek bakarrik egin dezakeen bezalako; gizakien alderdi iluna aurrean jartzen digu, sentiberakeriari inolako lekuri utzi gabe. Eta ezin ahaztu itzultzailearen lana. Xabier Olarraren eskuetan hizkuntza lanabes malgua da, liburuaren tonu desberdinak islatzeko egokia.



APIRILA

Iñigo Aranbarri

Esteban Alberdi protagonistak lana galdu du, aldentzen ari zaio familia, eta durduzatuta dabil. Baina oraindik gehiago okertuko da bere egoera. Gau batean, kaskarrean kolpe handia hartuta aurkituko dute kale bazterrean. Eldarnio betean, denboraren putzuan barneratuko da, bi mende eta erdiko jausian: Azkoitian ikusten du bere burua 1766ko apirilean, gariaren eta artoaren prezioa garestitu dutenean eta herritarrak matxinatu egin direnean. Krisia, langabezia, errebolta, errepresioa, hondamena dira kontakizunaren ardatzak, jirabiran mugitzen dituztenak iragana eta etorkizuna.



19 KAMERA

Jon Arretxe

Trama paralelo batzuek osatzen dute umorea eta gordintasuna konbinatzen dituen nobela beltz hau: Palankako klub bateko prezio susmagarriak, trafikatzailen arteko istiluak, adin txikiko prostituta baten desagerpena, kaputxadun talde baten jipoi eta hilketak... Dena dela, nobelako ardatz nagusia Toure da, Bilboko San Frantzisko auzoan bizi den etorkin afrikarra. Ogibidea bilatzen behartuta, gezurrezko igarle gisa saiatuko da lehenik eta, pixkanaka, kasu eta proposamen bitxiak sortzen joango zaizkio.




EZ ZEN DIRUAGATIK

Ana Jaka

Diru kontuak iradokitzen dizkigu izenburuak, diru kontuak agertzen dira orrietan, baina diru kontuak azaleko kontuak baino ez dira, aitzakiak dira askotan, maitasun-eske metalikoak; zenbaitetan, itsaso izoztuan igeri egiten jarraitzeko salbamendurako jaka ere bai.


Olgaren begietatik irakurriko dugu eleberria. Bera da protagonistetako bat, bere arrastoa jarraituko dugu orriz orri. Ez du lanik, gizarte-laguntza da bere iturri ekonomiko bakarra, orainaldian bizi den emakumea, etorkizunera begiratzeko gogorik edo kemenik ez duena. Dani berarekin bizi den gaztea da, gay lerdena, etxetik ihes egin, zerbitzari lanetan hasi eta istripu batek asmo on guztiak lapurtu dizkion gaztea...



EL ASESINATO DE PITÁGORAS

Marcos Chicot

El anciano filósofo Pitágoras, uno de los personajes con más poder de su época, está a punto de elegir un sucesor entre los grandes maestros cuando en su comunidad se inicia una serie de asesinatos. Tras los crímenes se atisba una mente oscura y poderosa que parece superar al mismísimo Pitágoras. La enigmática Ariadna y el investigador egipcio Akenón tratarán de descubrir quién es el asesino a la vez que resuelven sus propios sentimientos. Un reto en el que los fantasmas del pasado se unen a las oscuras amenazas del presente.



CÓMO DAR CLASE A LOS QUE NO QUIEREN

Joan Vaello Orts

El secreto de enseñar no es tanto transmitir conocimientos como contagiar ganas, especialmente a los que no las tienen. Qué hacer con estos alumnos para integrarlos en la clase, o al menos conseguir que permitan trabajar a los que sí quieren, es el principal reto de las enseñanzas obligatorias, lo que pasa por la consecución de un clima favorable en el aula y en el centro mediante la creación de condiciones propicias que no se van a dar espontáneamente, sino que deben ser creadas por el profesor.



EL HÉROE DISCRETO

Mario Vargas Llosa

Trata de las historias paralelas de dos empresarios en el pujante Perú actual: Felícito Yanaqué, pequeño empresario de Piura, e Ismael Carrera, exitoso hombre de negocios de Lima.

Felícito Yanaqué, dueño de "Transportes Narihualá", está casado con Gertrudis y es padre de dos hijos, Miguel - de cuya paternidad duda por sus rasgos blancos y cuya gestación forzó su matrimonio con Gertrudis- y Tiburcio. Sin embargo, goza de momentos de una juvenil felicidad en las visitas a su amante, Mabel. La paz de Felícito se verá empañada por la sucesiva aparición de unas misivas de unos extorsionadores que le exigen el pago de una cuota y que aparecen firmadas con una pequeña araña...